

la perfumería

de Mercadona

2016KO UDA

10 EKO
GORPUTZA
NOLA GARAITU
ZELULITISA

EGUZKI-EGUNAK

ZURE AZALERAKO BABESA
ETA HIDRATAZIO ESTRA

TRO -PI- CAL





AURKIBIDEA

04 Eguzki-egunak

Urre-koloreko azala bai, baina estrategia argi batekin: babesa eta hidratazioa, eguneko ia 24 orduetan. Saihestu eguzkiak zure azala kaltetzea, eta indartu haren onurak. Beltzaran-kolore osasuntsu bat izan dezakezu; kargatu zaitez D bitaminaz eta bizitasunez.

14 Dena, 10eko gorputz bat izateko

Azal perfektua nahi dugu eta biribiltasunak toki egokietan. Konstantziaz gain buruan etengabe erabiliko dituzun bi ideia hauek izango dira zure edertasunaren aliatuak: lehena, esfoliazioa, izugarri garrantzitsua azalarentzat, eta, bigarrena, zelulitisa menperatzea.

18 Udako ilea

Ile perfektua izan nahi duzu egun osoan? Nola zaindu jakitea da gakoa.

20 Bon Voyage

Paradisuko hondartza, hiri kosmopolita edo safaria sabanan? Gure proposamena: 3 look estilodun, 3 opor-helmugarako.

24 Color UP

Makillaje-kode berriak aurtengo udarako. Itsas bizitasuna begiradan + fruta-koloreak azazkal eta ezpainetan. Ausartuko zara?

28 Rose Quartz & Serenity

Pastel-tonuak dira nagusi 2016an. Bi hauts-koloreren konbinazioa da joera nagusia; ongizatea eta lasaitasuna transmititzen dituzte bi koloreok.

30 Oinak airean

Iritsi da oinak biluzteko garaia. Udaberrian, manikura perfektua izateko argibideak jaso genituen, eta, orain, oinen txanda da. Prest?

32 Tropikala

Injektatu energia eta kolorea zure azazkalei. Tonu dibertigarri batzuk daude Deliplus Color esmalte-bilduma berrian, temperatura igoaraziko dutenak.

Argitaratzailea: MERCADONA SA
Polígono Industrial Fuente del Jarro
C/ Ciudad de Liria, 5. 46988 Paterna / Valencia
Egilea: Ediciones ELCA
Inprimaketa: Jiménez Godoy
Lege-gordailua: TO-0789-2008

Aldizkari honetan agertzen diren produktuak Mercadonaren eskaintza estandarrekoak dira. Espazio-arazoak direla eta, baliteke inoiz produkturen bat ez aurkitzea. Arren, galdetu gure langileei. Doako alea; debekatuta dago saltzea edo merkaturatzea. © Aldizkariaren titularra MERCADONA, SA da. Eskubide guztiak erreserbatuta daude. Debeakuta dago aldizkaria baimenik gabe osorik edo partzialki erabiltzea eta/edo erreproduzitzea, bai eta markak eta/edo logotipoak ere.

Eguzki- egunak

*Urre-koloreko azala bai, baina
estrategia argi batekin:*

BABESA ETA HIDRATAZIOA,
eguneko ia 24 orduetan

*Saihestu eguzkiak zure azala kaltetzea,
eta indartu haren onurak.*

*Beltzaran-kolore osasuntsu bat izan
dezakezu; karga zaitetz D bitaminaz
eta bizitasunez.*



Babestu aurpegia

Ezinbestekoa urte osoan

Gogoan izan: aurpegia agerian egoten da urte-saso guztietan, eta zuzenean jasotzen du eguzki-izpien eragina. Beti zaindu behar dugu azalaren fotozahartzea, orbanak eta beste arazo batzuk saihesteko. Azalak oroimena du, eta, horregatik, zaindu egin behar dugu. Solcare babes-lerroak behar desberdinetarako soluzioak ditu.

(1) Adinaren aurkako FPS 50+ aurpegi-babesa.

Oso babes handia, adinaren aurkako ekintza global batekin konbinatua. Gainera, zimurren aurka egiten du, eta aurpegiko orbanak tratatzen eta prebenitzen ditu.

(2) Xurgapen azkarreko FPS 50+ aurpegia babesteko fluidoa.


Babes oso handia eta testura arina.

(3) Eremu sentikorretarako FPS 50+ aurpegi-babesa.

Babes handiena aurpegiko eremu sentikorretarako, hala nola sudurra edo begi- eta ezpain-ingurua.

(4) FPS 30 aurpegia babesteko makilatxoa.

Gustatuko zaizu, babeseta beti aldean eramateko modu praktikoa eta eroso baten bila bazabiltza; edonoiz eman ahal izango duzu.



Modeloak Bon Voyage 18 zk. ezpainenako barra du.



1



2



3



4

Urre-kolorea

Denbora gutxi duzu eguzkia hartzeko edo zuzenean ihes egiten diozu, baina urre-koloreko azal beltzarandua izan nahi duzu?

Berehalako beltzarantze-efektuko gorputz-gelak azala edertzen du, eta unean bertan beltzarantzen du. Dagoeneko beltzuta bazaude, nabarmendu egingo zaizu kolorea. Haren eragina eta iraupena makillaje baten antzekoak dira; kentzeko, ura eta xaboa erabiltzea da onena. **Beltzaran-efektuko gorputz hidratatzaileak** urre-koloreko tonu polit bat ematen du pixkanaka, eta lozioa eman eta hiruzpalau egunera ikusten da eragina.



GOGORATU

Krema horiek
EZ DUTE
EGUZKI-IRAGAZKIRIK.

Solar Deliplus kapsulak.

Lagugarria da beltzaran-kolore naturala indartzeko eta iraunarazteko.



GORPUTZEKO *babesa*

Wet Skin FPS 30 eguzki-espraia (1), babes handi eta eraginkorra azal lehorrentzat nahiz bustiarentzat.

Eguzkitik babesteko FPS 15 krema, oliba-olioduna (2).

Solcare sorta: FPS 30 eguzki-esnea + osagarria (3).

1



2



3



Eguzkitan jartzeko prest?

- ✓ Ez erabili aurreko urteko babesak; behin irekita, eraginkortasuna galtzen dute.
- ✓ Beltzarandua egon arren, UV izpienezko babesak erabiltzen jarraitu behar duzu.
- ✓ Eguzki-kremak erabiltzeaz gain, zenbait osagarri ere –hala nola eguzkitako betaurrekoak, txapelak eta pareoak– lagunduko dizute azala hobeto babesten.

*Pisua galtzen
laguntzen du, eta
koipea erretzen du*

10eko
*gorputz
baterako*





BERRIA
FPS50+ ESPRAIAK
APLIKAGAILU
BERRIA DU

Suspertu

Eguzkitan egon ondoren, aftersuna erabiltzea da onena; berariaz daude aktibo lasaigarriekin eta suspertzaileekin formulatuak, azalari bere hidratazio-maila itzultzeko.

Aftersun suspertzaileak beltzaran-koloreari eusten dio, zure azala luzaroago egon dadin beltzarana. Azala gel-testura batekin suspertzea nahiago baduzu, **aftersun gel aloe veradunak** lasaitu eta hidratatu egiten du, freskatzeaz gain.



Txiki entzat

Babes handia, haurren azal delikaturako:

Haurrentzako FPS 30 eguzki-espraia.

Babes oso handia: **haurrentzako FPS 50+ eguzki-espraia, haurrentzako FPS 50+ aurpegirako eguzki-krema eta haurrentzako FPS 50+ eguzki-esnea.**



Haurrentzako FPS 50+ eta FPS 30 eguzki-espraiek berde-kolore dibertigarri bat dute, zeina desagertu egiten baita masaje leun bat emanez gero, babestu gabe gelditzen diren eremuak begiratu hutsarekin hautemateko.



BB bronzer

deliplus
COLOR

*Edertasun-baltsamoa
azal beltzarandu
efektua lortzeko.*



SPF 20



Eskuak

Aurpegia eta gorputza eguzkitik babesten dituzu, eta zergatik ez duzu egiten gauza bera eskuekin?

Adinaren eta orbanen kontrako eskuetako krema FPS 6 eta E bitaminadunak saihestu egiten ditu orbanak eta azalaren zahartze goiztiarra.



Aurpegia

Aurpegiko FPS 50+ babes koloreduna; babes oso altua azal-mota guztietarako. Gainera, beltzaran-tonu polit bat ematen dio azalari.



Ezpainak

Dermik ezpainenako suspertzaileak

bere onera ekartzen ditu eta hidratatu egiten ditu eguzkiak, kresalak, giro lehorrak eta abarrek kaltetutako ezpainak.

Bularra

Vanity Series bularrak tinkotzeko berariazko tratamendua egiteko krema.

Sentitu uda

Utzi EGUZKI-IZPIEI zure azala laztantzen, deskonektatu, eta gozatu eguraldi onaz. Hemen duzu urteko garai beroenean eroso sentitzeko behar duzun guztia.

Abdomena

Txokolate- eta banilla-zaporeko irabiakiak edo txokolatezko arrautza-esneko irabiakia, lirain egoteko aliatuak.



Iztarrak

Zelulitisaren kontrako Extreme Vanity Series kremak zeluletan eragiten du: koipea erretzen du, eta berriro pilatzea saihesten. Azala laua mantentzen da; itxura hobetzen zaio, eta tinkotasuna lortzen du.

Hankak

Ahaztu hanken astuntasuna; hobetu zirkulazioa **Deliplus hanka arinak izateko anpoilekin.**

Bizkarra

Zure azala hidratatuta eta babestuta, **FPS 50+ eguzki-espraiarekin**; aloe vera eta E. bitamina ditu.



la perfumería

DENA

10
EKO

gorputz

BAT LORTZEKO

AZAL PERFEKTUA nahi dugu eta biribiltasunak tokia egokian. Konstantziaz gain buruan etengabe erabiliko dituzun bi ideia hauek izango dira zure edertasunaren aliatuak: lehena, esfoliazioa, izugarri garrantzitsua azalarentzat, eta, bigarrena, zelulitisa menperatzea.

ESFOLIAZIOA DA SEKRETUA

Udan, eguzkia hartzen dugu, hondartzan eta igerilekuan bainatzen gara, eta, beraz, azala kaltetzeko arrisku handiagoa dugu. Horregatik, esfoliatu eta hidratatu egin behar dugu aldizka. Erabili astean pare bat aldiz **Deliplus dutxako gel esfoliatzailea** (1). Zelula hilak kenduko dituzu, eta ondoren ematen dituzun krema hidratatzaileen eragina hobetuko duzu.

Egin lehen garbiketa sakona **Deliplus krinezko eskularruarekin** (2), zelulitisa garaitzeko eta 10eko beltzaran-kolorea lortzeko aliatu perfektua. Deliplus belaki esfoliatzaileak (kolore bat baino gehiago), esfoliazio perfektu baterako osagarri gisa. Hala, azal tinkoa eta zikinkeriarik gabea lortzen da:

- ✓ Esfoliazio leun baterako, **lore-belakia** (3): zikinkeriak kentzen ditu behar handiena duten gorputzeko zatietatik.
- ✓ Tarteko *peeling* baterako, **masaje-belakia** (2 ale) (4). Ekintza bikoitza du: esfoliatu eta masajea ematen du, eta azala tente mantentzen du.
- ✓ Esfoliazio sakon baterako, **peeling-belakia** (5). Forma ergonomikoa du, eta zirkulazioa aktibatzen du.



1



3



2

4

5





AGUR ZELULITISARI

Bikini-operazioak martxan jarraitzen du. Konstantzia da ezarritako helburua lortzeko giltzarria. Jarraitu udan ere zelulitisaren kontrako kremak ematen eta egin ariketa fisikoa egunero eta dieta orekatua.

Bolumen menderakaitzen murriztaile (1) berriak bolumena murriztu eta silueta tinkotzen du. Ereku menderakaitzetako koipe-metaketak berdintzen ditu; gluteo, izter, beso eta sabelekoak, besteak beste... Azalaren itxura hobetzen du, tentetasuna eta hidratazioa ematen baitizkio. Masajea emateko aplikagailuak areagotu egiten du produktuak koipea erretzeko duen efektua, eta ekintza drainatzailea errazten du. Indartu pilatutako koipearen kontra egiten duzun eguneroko borroka,

Vanity Series zelulitisaren kontrako olio lehorraren esprai murriztailearekin (2). Haren bidez, eguneko 24 orduetan egin dezakezu zelulitisaren kontra. Funtzionamendu erraza du: zenbat eta gehiago mugitu, orduan eta gehiago erreko duzu.



Maisu-UKITUA

Eman ezazu kirola egin aurretik edo oinez ibiltzera bazoaz; eragina areagotuko duzu.



Osagarri gisa, hartu egunean **Drenapur makilatxo** (3) bat, uretan disolbatuta. Txikoria-belarrarekin, andremahats beltzarekin eta urkiarekin egina dago, eta likidoak galtzen lagunduko dizu. **Zelulitisaren kontrako Deliplus krema murriztaileak** (4) zenbait aktibo konbinatzen ditu –hala nola kafeina, galorratz-olioa, Asiako zentella eta E bitamina–; zelulitisa saihesten dute, eta laranja-azala hobetu. Gomendagarria da egunero ematea, mugimendu zirkularreko masaje bat emanez, eta koipea kontzentratzen den eremuetan bereziki eraginez.

SOLCARE
AURPEGI-BABESA
AURPEGI BABESTUA
ETA ZAINDUA

solcare





UDA KO *ilea*

Ile perfektua izan nahi duzu egun osoan? Nola zaindu jakitea da gakoa.



Oso erraz egingo duzu udako look hori, **afro orraziarekin** (kolore bat baino gehiago) eta **ile kizkurrerako gel finkatzaile fluidoarekin**. Lehenak, ile kizkurra orrazten eta deskorapilatzen du, forma naturalari eutsiz; bigarrenak, berriz, forma eta distira ematen ditu, eta, orobat, ile harrotua menperatzen du.



OSAGARRIA




Ilea lehortzeko turbante-toalla

lagungarria da ileari hezetasuna kentzeko, eta, gainera, ileko tratamenduak indartzen ditu.



SURF-UHINAK



PERFEKZIONATZAILE ESPRESA



EFEKTU BUSTIKO LOOKA



Itxura bustiko ilea modernotu egingo da udan, estilo sofistikatuago batekin. Gomina jarri ilean, eta orraztu atzeraka, soltean edo jasota, baina betiere aurpegitik kenduta. Efectu hori lortzeko ezinbesteko kita: **gel finkatzaile estragororra** eta **gel-orrazia** (kolore bat baino gehiago).

Ezusteko hitzordu bat duzu? Lanekoa nahiz aisialdikoa izan, jaso ilea urkila soil batzuekin, finkatu **laka estragogorrek**, eta bere horretan mantendu. Eman ukitu chic bat **ilerako osagarri** batekin.



BABESTU ILEA




Exotic xanpuak eta **egokitzaileak** ilea zaintzen eta askatzen du, eta eguzkitik babesten. Egokitzailea eguzkitan jarri aurretik eman daiteke, bai ile bustiarekin, bai lehorrekin.



TXIRIKORDA-MOTOTSA

Denboraldi honetako joeretako bat, txirikorda-mototsa, bertsio desberdinetan dator: galburu-formakoa, erro-trentza, afrikarra... Errotik egiten den afrikarraren aldekoak gara. Eta osagarri batzuk gehituko dizkiogu, kolorea emateko.



Bon Voyage!

*PARADISUKO
HONDARTZA,
hiri kosmopolita edo
safaria sabanan?*

*Gure proposamena: 3 look
estilodun, 3 opor-helmugatarako.*

PARADISUKO HONDARTZA

Ur gardenak, urre-koloreko harea eta eguzkia nahi beste. Erlaxatzeko eta deskonektatzeko egunak ametsetako helmuga batean hasten dira. Gozatu!



Ihesaldi honetako makillajeak ukitu exotiko bat dauka.

Begirada kolorez betetzen da:

Bon Voyage 02 zk. itzal-paleta (A), ura jasaten duen Bon Voyage 01 zk. eyeliner-a (B) goiko betazala markatzeko, eta Dramatic Volume betile-maskara (C). Masailetan, **kolore anitzeko koloretea (D); azazkaletan, esmalte tropikal magenta 712 zk. (E); eta, ezpainenetan, Bon Voyage distira, 14 zk. marrubikolorekoa (F).**



Makillajearen nezeserrian...





HIRI KOSMOPOLITA

Denen gustuko helmugak daude. Hirizaleek nahiago dute kulturaz eta xarmaz betetako hiriak ezagutzea, eta kale interesgarrietan barrena galtzea.




Begirada da *look* honen protagonista, lagun dituela **Bon Voyage paletako 02 zk.** urre-eta brontze-koloreko itzalak (A), **Bon Voyage iraupen luzeko arkatz urdin bizia 05 zk.** (B) begia markatzeko, eta **Volumen 4Dimensiones betile-maskara** (C). Makillajea osatzeko: **koral-koloreko koloretea** (D), **ezpainetako barra krematsu kuartzo-arrosa pastela 20 zk.** (E), **Bon Voyage distira perla-kolorekoa 11 zk.** (F) eta **esmalte tropikal arrosa 718 zk.** (G).

Makillajearen nezeserrian...



EGINGO DUGU SAFARIA?

Animalia basatiek, lautada zabalek eta Afrikako sabanako ilunabar koloretsuak zure espiritu abenturazaleena berpiztuko dute.



Kasu honetan, makillajea arinagoa da, lur-tonuetakoa. **Bon Voyage** itzal-paleta 02 zk. (A), ura jasaten duen **Bon Voyage** eyeliner-a 01 zk. (B) eta **Maxi Volumen** betile-maskara beltza 01 zk. (C). Kolore anitzeko koloretea (D) masailalbo-hezurrei argitasuna emateko, **Bon Voyage** ezpainenako barra mate koral-kolore bizikoa 17 zk. (E) eta esmalte tropikal berdea 715 zk. (F).



Makillajearen nezeserrea...





COLOR UP!

Makillaje hori lortzeko: **iraupen luzeko begietako itzal turkesa 07 zk.** betazal mugikorrean, eta, begiaren behealdea delineatzeko, **iraupen luzeko itzal itsas urdina 08 zk.**, zeina ezin hobeto baitator turkesarekin. Ezpainenetan, **UP bildumako barra 23 zk. neon-arrosa**; masailalbo-hezurretan, **Pink koloretea 02 zk.**; eta, azkenik, **Volumen 4Dimensiones betile-maskara.**



MAKILLAJE- KODE BERRIAK AURTENGO UDARAKO

ITSAS ODA BEGIRADAN
+ FRUTA-KOLOREAK
AZAZKALETAN ETA
EZPAINETAN
AUSARTUKO ZARA?

Udako look hori lortzeko, makillatu begiak hauekin: **perla-zuriko itzala 01 zk.** oinarri gisa, **iraupen luzeko itzal turkesa 07 zk.** eyeliner gisa eta **Bon Voyage iraupen luzeko arkatz berde turkesa 04 zk.** begia delineatzeko. **UP bildumako ezpaintedako barra mango-kolorekoa 22 zk., Pink koloretea 02 zk., Volumen 4Dimensiones betile-maskara** eta, azazkaletan, **gel-efektuko esmalte koral-kolorekoa 724 zk.,** makillajea osatzeko.



Lortu nahi duzu makillaje hau? Oinarri gisa, **itzal perla-zuria 01 zk.**, iraupen luzeko **itzal turkesa 07 zk.** betazal mugikor guztian, eta iraupen luzeko **itzal itsas urdina 08 zk.**, begiaren behealdea markatzeko, betileak inguratuz. Ezpainetan, **UP bildumako ezpainetako barra mugurdi-kolorekoa 20 zk.**; masailetan, **kolorete arrosa 01. zk.**; betileetan, **Volumen 4Dimensiones betile-maskara**; eta, azazkaletan, **gel-efektuko esmaltea 680 zk.**



Iraupen luzeko itzal itsas urdina 08 zk. / Iraupen luzeko itzal turkesa 07 zk. / UP bildumako ezpainenako barra neon-arrosa 23 zk. / Volumen 4Dimensiones betile-maskara / Pink koloretea 02 zk.



Iraupen luzeko itzal turkesa 07 zk. / Pink koloretea 02 zk. / Itzal perla-zuria 01 zk. / UP bildumako ezpainenako barra mango-kolorekoa 22 zk. / Bon Voyage iraupen luzeko arkatz berde turkesa 04 zk. / Volumen 4Dimensiones betile-maskara / Gel-efektuko azazkal-esmaltea, koral-kolorekoa 724 zk.



Iraupen luzeko itzal itsas urdina 08 zk. / Iraupen luzeko itzal turkesa 07 zk. / Kolorete arrosa 01 zk. / Itzal perla-zuria 01 zk. / UP bildumako ezpainenako barra mugurdi-kolorekoa 20 zk. / Volumen 4Dimensiones betile-maskara / Gel-efektuko azazkal-esmalte arrosa 680 zk. Ebaki, limatu eta zaindu azazkalak (B).

MODAKO MAKILLAJEA

Bi kolore oso moldakor, look ausart bat lortzeko, begietako itzal belztuarekin eta azazkalen efektu mailakatuarekin, ezin hobea udako egunetarako. Bestela, makillaje sinpleagoa, erromantikoa edo naturala aukeratu dezakezu.



Seco&Mojado quartz + serenity itzala 13 zk.



Serenity azazkal-esmaltea.



Rose Quartz azazkal-esmaltea.

ROSE QUARTZ & SERENITY

Pastel-tonuak dira nagusi 2016an. Bi hauts-koloreren konbinazioa da joera nagusia; ongizatea eta lasaitasuna transmititzen dituzte bi koloreok.



Efektu mailakatu lortzeko, makillaje-belaki bat erabiltzen da. Nola? Margotu bi kolorekin belakia, eta eman zuzenean azazkalaren gainean, ukitu leunak emanez. Azazkal bakoitzean gutxienez bi aldiz errepikatu behar dugu ekingintza hori, estaldura hobea lortzeko. Azkenik, ertzak kenduko ditugu, esmalte-kentzekoarekin.



Ezpainetako barra krematsu kuartzo-arrosa pastela 20 zk.



Makillaje hori lortzeko: **Seco&Mojado quartz**
+ **serenity begietako itzala 13 zk.**, **Volumen**
4Dimensiones betile-maskara, **Pink koloretea 02**
zk., **ezpainetako barra krematsu kuartzo-arrosa**
pastela 20 zk. eta **Serenity azazkal-esmaltea.**

la perfumería

OINAK airean

*Iritsi da oinak
biluzteko garaia.
Udaberrian,
manikura
perfektua izateko
argibideak jaso
genituen, eta, orain,
oinen txanda da.
Prest?*

OIN PAREGABEAK **4** URRATSETAN

1

Esfoliatu. Astean behin edo bi aldiz, orpoetan gehiago eraginez. Erabili **gogorguneen kontrako esfoliatzailea** (A), areagotu efektua apar-harriarekin.



A

2

Ebaki, limatu eta zaindu azazkalak (B).



B

3

Hidratatu. **Lehortasunaren aurkako crema hidratatzaileak** (C) elikatu eta leundu egiten ditu.



C

4

Tratatu. **Zartadurak konpontzeko kremak** (D) sakon hidratatzen ditu gogorguneak dituzten oin oso lehorrak eta zartadurak. Estra bat eremu gatazkatsuetarako: **gogorguneen eta kailuen berariazko tratamendua** (E); bigundu eta murriztu egiten ditu.



D



E



IRTENBIDE PERFEKTUA

Urratuen aurkako makilatxoak oinetakoak estreinatu aurretik ematen da, edo ordu askoan ibili behar duzunean, sandaliak urraturik ez egiteko.



ZURE ALIATU IKUSEZINA


Ahaztu izerdiaz eta usain txarrez. **Oinetako izerdiaren aurkako desodorantea.**



(TROPICAL)

Injektatu energia eta kolorea zure azazkalei

Tonu dibertigarri batzuk daude Deliplus Color esmalte-bilduma berrian, temperatura igoaraziko dutenak.



Modeloaren makillajea: **iraupen luzeko itzal turkesa 07 zk.**, **krema-itzal matea 13 zk.**, **Volumen 4Dimensiones betile-maskara beltza**, **barra krematsu kuartzo-arrosa pastela 20 zk.** eta **azazkal-esmalte tropikal akuamarina-kolorekoa 716 zk.**



Kolorez betetako uda baterako!



Esmalte tropical urdina 714 zk. + azazkaletarako dekorazioak.



Esmalte tropical horia 717 zk. + azazkaletarako dekorazioak.



Bon Voyage!

deliplus
COLOR

Edizio
mugatua



Exotic



Deliplus